

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fernando San Sebastian Esnaola

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Miravalles izeneko baserrian jaio zen, baina beti "Millos" deitu izan diote herrian etxeari. Bederatzi senide ziren, sei mutil eta gainerakoak neskak, eta bera erdikoetakoa zen. Sei urtetik hamabira bitartean Urnietan erdaraz ikasi behar izan zuen gainerako umeek bezala. Basoan aritu zen urtebetez-edo, baita obrak egin behar ziren tokietan zabaltokiak egiteko lurra kentzen ere: esate baterako, Urnietako seminarioko frontoiak egiteko lurra kentzen aritu zen. Andoaingo Laborden 3 urte egin bazituen ere, luzaroen aritu den lantegia Hernaniko Orona izan da. Hasierako urteak Ergobian egin zituen, eta gerora Hernanin bukatu zuen hogeita hamabi urte bertan ibili ostean. Galardi baserrian morroi sartu zen aurrena, gaztea zela, baina bertako alabarekin ezkondu zen eta bertan bizi izan da.

Zintak

URN-023

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-02-05
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Baserriko lanen banaketa

- **Erref:** URN-023/002
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:02:14. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxeko lanak beste tankera batekoak izaten ziren orduan. Bazkalorduan erditik jaten zen beren etxean. Familiakide bakoitzak bere lanak izaten zituen etxean eta kanpoan. Gustuko zuen behi jeztea, baina ez afalorduan upeletik sagardoa ekartzera joatea. Igandetan txandaka egiten zuten behi-jeztea.

2. Idiak zein behiak uztarrirako

- **Erref:** URN-023/004
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Orduan baratzea oso txikia izaten zen, ez zen traturik eramaten saltzera. Etxerako adina edo hartzen zen. Arreba zaharrena esnea banatzera joaten zen. Soroan, berriz, lan asko egiten zen. Idiak zeuden lekuetan idiekin, baina bestela behiekin lantzen zen lurra. Idiak aise prestatzen ziren lanerako baina ez, ordea, behiak. Idiak askoz ere hobeak ziren. Goldan egiteko, esaterako, bi behi pare behar izaten ziren elkarri lotuta.</p>

3. Idiak nola uztartzen diren

- **Erref:** URN-023/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Bideak txarrak ziren eta sarri bi behi-pare erabili behar behar izaten ziren. Idiak nola uztartzen diren azaltzen du.

4. Lurra lantzeko tresnak

- **Erref:** URN-023/006
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Lehenengo karramarroa pasatzen zen lurra urratzeko. Gero simaurtu. Kirrimarroa, goldea, lastra eta harria. lurra lantzeko tresnak. Tresna gehiegi, Fernandoren ustez. Artoa apur bat hazten zenean, besabea pasatzen zen ilara bitartean idi edo behi bakarrak tiratuta. Hesia eta alperra ere erabili izan dituzte. Etxean gorde ohi zituzten erremintak

5. Artoa, erremolatxa, baba, babarruna... nola landu

- **Erref:** URN-023/007
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Lurra maneaturakoan markatu egiten zen. Artoa aitzurrez sartzen zen, zuloa eginda. Beste gauza batzuk, berriz, hazia lurrera bota (erein) eta harriaz edo lastraz estaltzen ziren. Babaren (Baba beltza) prozesua azaltzen du. Desberdina da, neguko lekalea baita. Arbiaz eta erremolatxaz azalpenak.</p>

6. Babarruna artoarekin batera ondoen

- **Erref:** URN-023/008
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Babarruna hobeto hazten da artoarekin batera arbak (parrak) ipinita baino. Baserri baten duela gutxi gertatutakoa kontatzen du: sail handia ipini zuten arbeekin eta ez zuten ale bat ere hartu. Lekak, ostera, hobeto arban. Artoari hostoa kentzea ona da babarruna heldu dadin.</p>

7. Pagotxa, arbia, erremolatxa

- **Erref:** URN-023/009
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Arto artean pagotxa erein izan zuten garai batean, baina lan txarra zen. Arbia neguko janaria da, jan ahala ekartzen da sorotik. Erremolatxa, ostera, azaro aldera erretiratu behar da, usteldu egiten delako izotzaz. Frantses-arbia ere izaten zuten.</p>

8. Gose denboran baserrietan goserik ez

- **Erref:** URN-023/010
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:20:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Artoa hazienden janari gisa zein arto-irina egin eta talotarako erabiltzen zen. Gerraosteko ogi janezinaren kontuak. Baserrian taloa eta esnea janez konpontzen ziren baina kaletarrek gose latza pasatzen zuten. Kaletik baserrira etortzen zen jendea lanera jan apur baten truke.</p>

9. Kaletarrak baserrira lanera janari truke

- **Erref:** URN-023/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Etxeko lanak etxekoen artean egiten ziren. Bidegintza izaten zen auzolan bakarra. Kaleko zenbait emakume babarrun biltzera eta artoa zuritzera etorri ohi zen baserrietara. Gizonak ere bai patata ateratzera.

10. Lixiba egiten askan eta errekan

- **Erref:** URN-023/012
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Etxe askotan errekarra joan behar izaten zuten arropa garbitzera. Belauniko jarrita, oso postura txarrean egin beharreko lana zen. Fernandoren etxean bazen arropa garbitzeko aska. Oso gogoan du nola aritzen ziren emakumeak lixiba egiten.

11. Ura, arazo ikaragarria garai hartan

- **Erref:** URN-023/013
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:23:58. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Baserri askotan ez zegoen urik. Lasarte aldera dagoen baserri batekoak erreko putzu batera etortzen ziren gurdiaz barriketan ura eramateko. Ura arazo handia zen orduan. Iturri txiki batzuk besterik ez ziren etxe ondota eta lehortearen zenean berehala agortzen ziren. Bera morroi egondako baserrian ez zen urik eta nolako komeriak lehortearen zenean.

12. Goizuetaraino astoarekin errotara

- **Erref:** URN-023/016
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Aita Goizuetaraino joaten zen astoaz errotara artoa ehotzera gerra ostean. Baziren makina txiki batzuk arto-irina egiteko; irin zakarragoa egiten zuten baina balio zuen esnearekin nahastuta jateko.</p>

13. Garia eta artoa entregatu behar

- **Erref:** URN-023/018
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:30:36. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Uste du guardia gutxiago zebilelako joango zirela Goizuetako errotara. Itsasondora ere joaten ziren trenaz errotara. Urrietako errota prezintatuta zeuden. Garia eta artoa (eta baita inoiz txekorrak ere) entregatu behar izaten zen udaletxean.</p>

14. Zezina, gatzez kontserbatutako haragia

- **Erref:** URN-023/019
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Txekorra hil ohi zuten etxerako, eta orduan izozgailurik ez zenez, zezindu (gatza eman) egiten zuten haragia. Txerria hiltzea ere debekatuta zegoen.

15. Artoa, garia eta abar udaletxean entregatu behar

- **Erref:** URN-023/020
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baziren artoa edo garia erosi eta entregatutakoak ere uzta txarreko urteetan. Gurdika eramaten omen zuten artoa eta garia. Udaletxean biltzen zuten lehendabizi eta gero beste norabait eramaten. Arbigarak eta aza zuztarrak ere biltzen zituzten kaletarrek baratzetatik gose denboran.

16. 6-8 behi eta astoa baserrietan

- **Erref:** URN-023/021
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:37:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Simauro asko behar zuten soroek eta ez zen sobera egoten. 6-8 behi egoten ziren baserri bakoitzean. Astoa etxe guztietan eta behorrak ere bai zenbaitetan.

17. Beldurrez eskolara

- **Erref:** URN-023/024
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:38:28. **Bukatu:** 00:40:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola bakarra zegoen Urnietan. Dena erdaraz, eta hala ere ez omen zuten ikasi. Makila eramanez eta gogor jotzen zituzten behatz puntetan eta buruan. Beldurrez eskolara. Gainera askotan etxean geratu behar itaurrean egiten. Orduan eskolari ez zitzaion inportantziarik ematen.

18. Ume jolasak

- **Erref:** URN-023/025
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:40:18. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Korrika, gorde-gordeka, kaniketan eta horrelako jolasetan ibiltzen ziren. Pilotan ere egiten zuten baina futboleko gutxi, ez baitzegoen baloirik. Lehen diziiplina handiegia omen zegoen eta orain txikiegia.</p>

19. Beste dibertsio batzuk: txori-habiak bilatzen, gerezi-lapurretan...

- **Erref:** URN-023/026
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Eskolatik etxera bizkor joan behar, lana izaten zuten eta. Txori-habiak bilatzen ibiltzen ziren igandeetan-eta. Gerezi lapurretan ere egiten zuten. Igerian errekako putzu batean.</p>

20. Perretxikutara gurasoak bazkalostekoa egiten ari ziren bitartean

- **Erref:** URN-023/027
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:45:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Perretxikutara ere joaten ziren gurasoak siestan zeuden bitartean. Kuletoa, onddoak, gibelurdinak, ziza horiak eta horrelakoak ezagutzen zituzten. Txanpinoiak eta lanpernak ez artean. Beste izen batzuk: apaiz-perretxikoa, urritz-perretxikoa. Tortillan prestatzen zituen amak.

21. Aingirak harrapatzen

- **Erref:** URN-023/029
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:46:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Aingirak harrapatzen jarduten zituzten errekan sardexkarekin. Zatitu, frijitu eta jan egiten zituzten. Amu-arrainik ez zen, erreka txikia delako.

22. Xoxokako erromeria

- **Erref:** URN-023/031

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:47:56. **Bukatu:** 00:49:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Xoxokan igandero egiten zen erromeria, Pazkoetan hasi eta hurrengo negura arte. Andoaindik-eta etortzen zen jendea. Soinujole asko ezagutu du han: Gettari, Patxi eta abar. Erromeria ondoren neska-laguntzea.

23. Kontzejupean ttunttuna eta gramola

- **Erref:** URN-023/032
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:49:36. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Neguan udaletxe azpian izaten zen dantzaldia. Lehendabizi ttunttunarekin (txistua eta danbolina) eta gero granbolarekin (gramola). Granbola zer den azaltzen du. Umeak bakarrik ibiltzen ziren granbolarekin.</p>

24. Apaizek galdeketa zorrotza konfesionarioan

- **Erref:** URN-023/033
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Dantza soltea bakarrik egiten zen udaletxe azpian, lotua galarazita baitzegoen. Lehen dena zen bekatu, eta, orain, berriz, ez omen da bekaturik. Apaizek galdeketa zorrotzak egiten zituzten konfesionarioan. Penitentziak gogorak izaten ziren.</p>

25. Neska-laguntzea distantziak gordez

- **Erref:** URN-023/034
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:52:50. **Bukatu:** 00:54:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Neska-laguntzera joan eta norbaitek harrika egindako kasuak izaten ziren orduan. Neskari gerritik heltzea eta horrelakorik pentsatu ere ez. Hala ere gertatzen ziren garaia baino lehenagoko haurdunaldiak.

26. Orona kooperatibaren bilakaera

- **Erref:** URN-023/037
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:57:00. **Bukatu:** 00:58:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Orona lantegia galdaragintzan aritzen zen hasieran. Gero patente italiarra erosi eta igogailuak egiten hasi ziren. Galdaragintzakoa oso lan gogorra zen. Azkenaldian lan erosoan izan zuen.

27. Soldadutza laburra

- **Erref:** URN-023/039
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 01:00:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza suete handia izan zuen, lau hilabete eta sei egun egin baitzituen bakarrik. Mutil gehiegi zegoelako, zozketa egin eta batzuk soldadutza laburra eginda libratu ziren. Orio gaineko kanpamenduetan igaro zuen denbora gehiena.</p>

28. Soldadutza ere erdara gutxi

- **Erref:** URN-023/040
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Soldadutza ere ez zuen erdara asko ikasi, euskaldunak euskaldunengana biltzen baitziren. Teorikan izaten zuten problema handiena. Ilea zeroan moztea izaten zen zigorretariko bat.</p>

29. Militar euskaldunak erdaldunak baino okerragoak

- **Erref:** URN-023/041
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:02:25. **Bukatu:** 01:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Batzuetan militar euskaldunak erdaldunak baino gaiztoagoak izaten ziren euskaldunekin. Eta zenbat eta graduazio apalagoa, orduan eta txarragoak, Fernandoren iritziz. Behin Mosketoia zikina izateagatik hurrengo egunera arte etxera etorri gabe zigortu zuten</p>

30. Kubiartekin egindako abarkak

- **Erref:** URN-023/045
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:10:35. **Bukatu:** 01:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Iluntzean elkartzen ziren sutondoan. Umeak ez omen du hotzik sentitzen. Kubiarta zaharrekin egindako abarkak erabiltzen zituzten. Abarkak nola egiten ziren. Larruzko abarkak oso irristakorrak ziren. Gero iltzedun botak etorri ziren baina oso kalitate txarrekoak.

31. Gau ilunetan kanpoan ibiltzeko argiak

- **Erref:** URN-023/046
- **Iraupena:** 0:19:12. **Hasi:** 01:12:48. **Bukatu:** 01:32:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Meza-orduak. Abarka zahar bati su emanda egin izan zuten argi zenbait gau ilunetan. Linternarik-eta ez zen, baina farolak bai. Lastazaoa ("lastuan garrillua") ere erabiltzen zuten argi egiteko. Emakumeek oinetakoak aldatu egiten zituzten herrira heltzean. Gizonezkoek ez.

32. Aita baserri-arotza

- **Erref:** URN-023/048
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:16:48. **Bukatu:** 01:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Arotz lanean aritzen zen aita. Etxean behar ziren zurezko tresnak egiten zituen: gurdia, harria, karretillak, eskailerak...

33. Dolarean sagardoa egiten

- **Erref:** URN-023/049
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:18:50. **Bukatu:** 01:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Dolarea izan dute beti. Nolakoa den deskribatzen du. Sagardoa nola egiten den. Lehen eskuz estututa egiten zen, baina orain argindarrezko motorra erabiltzen da.</p>

Transkripzioa

-Nolakua zan tolare hura?

-Hua da, kaja ormigoizkua du, eta geo ardatza, bakizu, hua burnizkua. Ta geo bestia "urkatxua" esaten zaio, azpin geo kaja hortan saarra jotzen dezu ta geo jarri bihar dia bi kanal [hoik] batetik besteaiño. Haren gaiñian, "patsolak" esaten zitzaion, holako lorikuak, ta haik danak jartzian geo beste egur haundi batzuk batetik besteaiñokuak lau, ta beste lau motxauak, ta geo urkatxua. Ta urkatxuoi etortzen da behera ta harek estututa sagardua han ateatzen da.

-Urkatxua behera nola etortzen da?

-Hori oain motorrakin jarriya zeon, baiño lehen eskuz hola trik-trak-trik-trak. Lasai daon bitartian bueltaka're bai, bueltaka're. Baiño puxkat estutzen hasi ezkeo hontara ibilli bihar dezu. Ta harek berak koxka batzuk dazka eta han estutzen da. Oain indarrakin do ta indarra eman eta harek beak ttarrarraaa itten du.

-Baina lehen lana izango zan.

-Bai, lan haundiya hua, lan haundiya. Dana eskuz eitteko horrek lan haundiya du.

-Sagar jotzen bakarra ere...

-Sagarra jotzen makinakin aitzen giñan, baiño aurrena eskuz. Geo indarrakin jarri zan. Ordun errex. Baiño tolaria dana eskuz itten lan handiya du. Oain tolare haundiyok danai motorrakin altxa ere itten dittue, esan dean egur hoik eta danak motorrakin altxatzen dittue. Ta han geratzen da patsa bakarrik. Ta hua preparatzen dezu berriz'ee, pixkat kendu ixkiñatik bueltan, ta gaiñea bota ta berriz'e zapaldu ta berriz'e sagardua atea.

34. "Zizarra", lehenengo sagar-zukua

- **Erref:** URN-023/050
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:20:42. **Bukatu:** 01:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Aurrena ateratzen den sagar-zukuari "zizarra" deitzen diote. "Sagardo berria" edo "muztioa" ere bai beste batzuek. Sagardoa putzutik ateratzeko baldea erabiltzen zen lehenago baina bonba orain.</p>

Transkripzioa

-Ateratzen den lehbiziko zumo hura zer da?

-Hua, batzuk "muztiua" esaten diye, beste batzuk "zizarra" ere esaten diye. Ze tokitan ze izen dan. Guk "sagardo berriya" esan izandu diogu beti. Oain aurren-aurrenekuai esaten genion zizarra. Baiño handik aurea ezkeo beti "sagardo berriya". Oain beste batzuk "muztiua" esaten due, ez dakit oain izen hoi nolakua izango dan.

-Ta kanal batzuk dittula esan dezu kaja harek.

-Bai.

-Ta kanal hoitatikan nora erortzen zan?

-Baztarretaa, bi baztarretaa. Ta geo haik garbi eoten dia ta geo beste bat, "tinilla" esaten genion, beste ontzi bat, hara eroritzen zan ttarrarraaaa, hara. Ta geo handik bonbakin ateatzen zan. Bonba ttiki batekin. Bueno, aurrena eskuz baldiakin. Geo bonbakin. Ta bonbakin errex itten zan baiño baldiakin bee lana badu harek, e.

-Bakarrik aitzeko ez,...

-Bakarrik aitzeko ez, bi laun gutxinian bihar dia. Bi laun gutxinian. Oain bonbakin bakarrik ingo dezu.

-Eta tinillatik nora botatzen zenduen?

-Barrikaa edo upela edo zaonera.

35. Upel motak

- **Erref:** URN-023/051
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:22:05. **Bukatu:** 01:23:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Upelak tamaina diferentetakoak izaten dira. Beraien handienak 3.000 litro hartzen zituen. Badira 600ekoak ere. Zur klase ezberdinak erabiltzen dira upeletan. Hiru mila litrokoak oso sagardo ona ateratzen zuen. 1.500ekoa gerezi-zurez egina zen eta sagardo gorrixka ateratzen zuen. Seboz estali behar zaizkie zirrikituak.</p>

Transkripzioa

-Tamaiña diferentetako upelak izango ziran.

-Bai, bai, hoi bai.

-Zenbat litrokoak edo akordatzen zea?

-Hor upela bat bazan hiru milla litrokua ta bestia izango zan milla ta bostehunekua edo hola ta geo bestiak ttikiauak, seirehunekuak eta holakuak. Holakuak zien.

-Material diferentetakuak ere bai igual.

-Egurra diferentiakin iñak? Bai. Horrek'e diperentziya izaten du, e; sagarduantzako diperentziya izaten du horrek'e. Upel haundi hua oso ona zan, ta beste esan dedan milla ta bostehun litroko hoi, hoi zan geriziakin eiña, ta horrek ateatzen zun beti sagardua gorriyaua. Ta beti gustua're pixkat diferentexiaua edo. Ontzi guzik ez dia gusto iguala ematen diyenak, e; ez dia.

-Politta izango zan lan hoi dena, zaila baino... Gero barrika barrenian sebua edo zeozer ematen...

-A bai, upelai bai. Barrikai ez, barrikai ez zitziyon sebua ematen. Han ez

zeon sartzeko tokirik eta hua itten zan jarri kanpuan eta urakin, pixkat irikita eoten zien, ta urakin ase. Baiño upel haundiyan ez do eitteik hoi. Upel haundiya in bihar da sebuakin jarri. Baiño harrek'e bee lana badu, e, bee lana badu. Ez badezu ondo sebotzen geo sagardua alde itten hasten da.

36. Sagardoaren prozesua

- **Erref:** URN-023/052
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:23:40. **Bukatu:** 01:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Bere momentua heldutakoan, itxi egiten zaio goiko zuloa upelari. Handik denbora batera botilan sartzen da. Ezin da upelean denbora asko eduki, moteldu eta mindu egiten delako. Botilan sartzeak lan handia du. Etxerako bakarrik egiten zuten sagardoa. Ez dute txotxerako ohiturarik izan etxean.</p>

37. Eibar aldeko euskara oso diferentea

- **Erref:** URN-023/053
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:26:00. **Bukatu:** 01:29:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara da gehien maite izan duen hizkuntza. Tolosa aldera ere aldatzen da apur bat baina Eibar aldera-eta ikaragarri. Goierri, Oiartzun eta horietan ere pixka bat diferentea, baina ondo ulertzen da. Beterrin antzera. Plazentziar batekin lanean aritu zen eta "berakasalda" deitzen zion baratxuri-zopari.

38. Gogoa duenak ikasten du euskara

- **Erref:** URN-023/054
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:29:02. **Bukatu:** 01:31:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Haurrak egiten duten euskara (batua) diferentxeagoa da. Urnietan euskara ondo mantentzen da. Borondatea duenak ikasten omen du. Euskaraz ikasi nahi ez zuen lantegiko erdaldun baten kasua.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com